

ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2020ko ekainak 5 • 1144. zenbakia



ENEKO SANCHEZ KRONISTA DIGITALA

ARGI URDINETIK BABESTEKO
EKIPAMENDUA

BETAURREKOA

+

LENTILLAK
(6 hilabete)

199€

Babestua 2020/07/11 arte. Kontu-iturri ugariari kargamenera erabagorria.

BABESTU ZURE BEGIAK PANTAILETATIK



Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com 

Oñati gestio heziketa **MGEP**
MONDRAGON GOI ESCOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA AIZLEMENDIARRIETA S COOP

2020-2021

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

Izen-ematea
Ekainaren 1etik 19ra

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
<ul style="list-style-type: none"> Administrazioa eta Finantza Zuzendaritza Mekanika Salmenta Kudeaketa 	<ul style="list-style-type: none"> Automatizazio eta Robotika Industriala Sareko Informatika Sistemaren Administrazioa Fabrikazio Mekanikoko Diseinua Fabrikazio Mekanikoko Produktibitate Programazioa Mekanika Industriala

www.mondragon.edu/ogh
rigarza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmh
onarpenna.ihm@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683

Mondragon Unibertsitatea LABORAL HETEL Fp

...eta kitto!-ren itzulpen zerbitzua

ERA GUZTIETAKO ITZULTZEN DITUGU, euskaratik gaztelarrera, gaztelera euskarara, eta ingelesetik euskarara.

- Urte askotako ESPERIENTZIA dugu.

- Bezeroaren beharretara EGOKITUko gara.

elkartea@etakitto.eus

Eskutitzak



Eskerrik asko zuon guztion babesarengatik

Bai, zuei ari gatzazue, herritarroi oro har, eta gure bazkideoi bereziki. Egoerarik latzenetan ere ondoan izan zaituztegu, gertu, eta oraingoan ere horrela izaten ari da. Heldu da COVID-19a eta hankaz gora jarri digu bizitza: hildakoak, gaixoak, itxialdia, ezjakintasuna, beldurra..., eta gauzak egiteko, lan egiteko, eta, azken batean, bizitzeko modua aldatu behar izan dugu egun batetik bestera.

Gure jarduna ere egokitu egin behar izan dugu, baina ez da eten; gauza asko ezin izan ditugu eta ezingo ditugu egin, zoritxarrez, baina beste askori heldu diegu eta eutsiko diegu. Euskarak ezin du galdu eta euskara ezin da zokoratuta gelditu. Euskarak gu guztion babesa behar du eta beharko du. Horregatik, egun, aste, hilabete eta urte guzti hauetan bidelagun zaituztegun guztioi -bazkide, berbalagun, dendari, tabernari, kirolari, artista...- eskaintzen dituzuen laguntasuna eskertu nahi dizuegu. Ez datoz sasoi errazak, inorentzat, baina zuon babesa dugula eta izango dugula jakiteak indarrez eta ilusioz betetzen gaitu.

Eskerrik asko bazkide, eskerrik asko herritar.

...eta kitto! Euskara Elkarte

Astean esanak



“K letra orain gure artean euskararekin eta idazkera alternati- boekin lotzen da nagusiki, baina ezer ez da hain sinplea. K letra Errenazimentutik aldeztu zuten ortografia arrazionala nahi zute- nek. Gaztelaniaz, ordea, halako berrikuntzak gaizki ikusiak izan dira ordutik, eta gutxi egin zuen Espainiako akademiak, ez bazuen alfabetotik deserritu. XX. mendearen hasieran, ordea, Europako iparraldearen eta hegoaldearen arteko ezberdintasunaren ikur bihurtu omen zen, alemanagatik. Handik omen datorkio letra honi funtzio subertsiboaren lehen karga. San Anselmok iragarri zuenez ere, zibilizazio kristaua K letra Erromara heltzean amaitu- ko da. Espainian aurkakotasuna areagotuz joan zen, hiru deabru batu baitziren haren inguruan: On Karl Marx-en karlistak, eliza katolikoa eraitsi nahi zutenak eta, nola ez, Arana Goiri. Ez da zaila asmatzen hiru ezinikusi horietatik datorrela erabilera punk eta antisistema”

BLANCA URGELL, euskaltzain urgazlea

“Hegazkinen ibiliaren etenak eguraldi iragarpenak egiteko beha- rrezkoak diren behaketa datuen gabezia eragin du. Datu horiek gabe, eguraldi iragarpenak ez dira usaian bezain fidagarriak. Hegaldiren neurketak zentro meteorologiko nagusietara pasatzen dira: prozesatu egiten dira, eta gero egiten da eguraldi iragarpena, ahalik eta ondoen. Hegazkinen datuek %10-20 hobetzen dituzte eguraldi iragarpenak. Hegazkinik gabe ere bizi gaitetzke, baina Atlantikoan, eta are okerrago Pazifikokoan, inor ez da bizi: beraz, satellite, itsasontzi eta hegazkinen datuek hango informazioak ematen. Altitudean den egoera meteorologikoak determinatzen du Lurreko eguraldia: horregatik dira altuerako datu horiek hain garrantzitsuak”

GUILLAUME SECHET, Biarritzeko meteorologoa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MUSTURRA OKERTU. → Haserrea edo nahigabea adieraztea, zentzu figuratuan. “Musturra okertu eban zenbateko zorra eukan esan etsanian”.



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILA
...eta kitto! Euskara Elkarte
HELBIDEA
Urkizu, 11. 20600 Eibar
TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285
FAXA 943 20 28 72
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
ELKARTEAREN E-MAILAK
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez
ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte
KOORDINATZAILUA
Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez
DISEINUA
Maku Oruezabal
MAKETAZIOA
...eta kitto! astekaria

ARGAZKI ARLOA
Malen Jainaga eta
Malen Illarramendi
HIZKUNTZA ARDURA
Juan Andres Argoitia eta
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA
Itziar Albizu eta Belen Ulazia
TELEFONOA
943 20 67 76
AZALEKO ARGAZKIA
Ekhi Belar
BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado

TIRADA
7.780 ale
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

(“...eta kitto!”k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

TUTULUMENDI



Idurre Iriondo

Greziako errefuxiatuentzat dilistak biltzeko kanpainak jarraipena izango du ekainaren 8tik 12ra

>>> Martxoaren hasieran aurkeztu zuten Ermuko Jesus Gonzalez eta Eibarko Mireia Alonso sukaldariak, Zaporeak taldeko boluntarioen eta beste hainbat laguntzarekin, Greziako Lesbosen errefuxiatuta daudenentzat dilistak eta arroza biltzeko kanpaina, baina pandemiak bete-betean harrapatu zituen eta, janari-bilketa ez ezik, aurreikusita zizuten beste ekimenak ere bertan behera geratu ziren. Mireia Alonsoren berbetan, "jakin badakigu une honetan jende asko dagoela laguntza premian, hemen-dik kanpora eta baita hemen, etxean bertan ere, eta ez diogu inori konpetentzia edo kalte egin nahi. Baina hasita dagoen proiektu hau ezin dugu horrela laga, kanpainarekin amaitu behar dugu. Besteak beste, etenaldiaren aurretik jendeak emandako dilistak eta arroza jaso behar ditugu, Lesbosen zain daude eta". Gauzak horrela, ekainaren 8tik 12ra bitartean, dilista pardinak (Eibarren) eta arroza (Ermuan)



jasotzen jarraituko dutela jakinarazi nahi diote jendeari. Azken orduko erabakia izan denez, bilketa-puntuak zeintzuk diren zehazteke zegoen aldizkaria inprentara bidaltzeko orduan, baina nahi duenak ...eta kitto! Euskara Elkartearen lokalera (Urkizu, 11 solairuartera) eraman ditzake dilistak, bertan jasoko dituzte-eta. Kanpaina amaitzeko ekitaldia, bestalde, Untzagan izango da, hilaren 13an eta errifan zozketa ere orduan egingo dute.

Esther Velasco zinegotzi sozialistak dimisioa eman du

>>> Aurreko astean ezohiko osoko bilkuran onartu zuten ofizialki Esther Velasco zinegotziak aurkeztutako dimisioa. Velasco Eibarko Udaleko zinegotzi aukeratu zuten 2019ko maiatzaren 26ko hauteskundeetan, PSE-EE taldearen zerrendan. Dimisio komunikatuan dioenez, "zinegotzi kargua betetzeko sortutako zailtasunen aurrean" erabaki du zinegotzi karguari uko egitea. Horrekin batera, bere esker ona azaldu nahi izan zuen bilkuran, "lankideen laguntzagatik eta jasotako tratuagatik". Eibarko sozialistek aurreko udal hauteskundeetan aurkeztutako



hautagaitzan oinarrituz, bere ordez Marisa Larrauri sartuko da Udalean laster. Larrauri "Debarreneko UGT sindikatuen pieza nabarmena" izateaz gain, 2015-2019 agintaldian Eibarko udalbatzako zinegotzia izan zen.

Mankomunitatea aurrez aurreko arreta ematen hasi da bulegoan

>>> Debarreneko Mankomunitatea astelehenean hasi zen herritarrei aurrez aurreko arreta ematen, gomendatutako segurtasun neurriak errespetatuz. Bulegoaren erdutegia betikoa izango da, 09:00etatik 14:00etara bitartekoa, eta herritarrek banan-banan deituko dituzte. Gehienez pertsona bakar-erak egongo da instalazioetan

eta gainerakoek kanpoan itxaron beharko dute, langile batek atea ireki eta sartzeko esan arte. Horrez gain, sartu ahal izateko derrigorrezkoa izango da maskara eramatea eta sarreraren eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbitzea. Mankomunitateko langileak babesteko, berriz, metakrilatozko pantailak ipini dituzte.



Bilduk pertsonak politiken erdigunean jarri nahi ditu

>>> EH Bilduk ezinbestekoak ikusten ditu talka planak COVID-19ak eragin duen osasun krisitik irtetzeko. "Autonomoentzat dirulaguntza zuzenak, negozioak dibertsifikatzeko laguntzak, enplegu industrialari eusteko beste ildo bat, eta herriko komertzio eta ostalaritza txikian herritar guztien kontsumoa sustatzea" proposatzen du Bilduk, Gorka Errastiren berbetan.

Udal aurrekontuari dagozkionez, ezohiko egoera izanik, ezohiko neurriak hartu behar direla uste dute. Alderdiaren

ustez aurrekontuek pertsonen ongizatea, duintasuna eta garapen ekonomikoa izan behar dute ardatz. Zentzu horretan, PSOEk Garapen Ekonomiko sailarekin egindako lana kritikatu du.

Kritikak kritika, hilabete hauek "elkarlanerako egunak" izan direla aipatu du Errastik. "Alkatetzarekin batera esku hartu dugu, proposamenak egin ditugu eta eibartarrentzat irtenbideak topatu ditugu". Dena dela, PNVrekin diagnostikoak eta errezetak adostea zaila izan dela aitortu dute.

Merkataritza eta turismoarentzat laguntza berriak atera dituzte

>>> Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak merkatarientzat diru-laguntza berriak atera ditu, COVID-19ak sektorean izan duen eragina leuntzeko. Laguntzak lokalen alokairuak ordaintzeko, lokalen salmentagastuen (maileguak) kuotetarako, saldu ez diren 2020ko Udaberri-Udako produktuen erosketetarako eta beste gastu arunt batzuei aurre egiten laguntzeko emango dituzte. Eskualde mailan, eskaerak Eibarko Merkataritza Bulego Teknikoan tramitatuko dituzte eta interesa dutenek

943206669 edo 943254083 telefonoetara deitu beharko dute (Leire edo Iñaki). Beste batzuetan ez bezala, laguntzak emateko orduan eskaera bakoitzaren ezaugarriak izango dituzte kontuan. Eskaera asko jasoko dituztela aurreikusita, ekainaren 21era arte jasotakoak tramitatuko dituztela ziurtatzen dute; hortik aurrerakoekin ahal dutena egingo dute. Horrez gain, turismoari laguntzeko beste laguntza batzuk ere emango ditu Eusko Jaurlaritzak eta horiek ere bulego berak tramitatuko ditu (epea ekainaren 27ra artekoa da).



Merkataritzako
Bulego Teknikoak

●●● FUNEUSKADI
Grupo Añitza

●●● FUNERARIA MUGICA
Funeruskadi

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
---	--

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

KARLOS
harategia

Jarduera betean dagoen
HARATEGIA TRASPASATZEN DA

INTERESGARRIA, MERKEA
ETA HIRIGUNEAN

Juan Gisasola, 8
943-203982 (09:00etatik 14:00ak arte)



Hauteskundeetarako osasun-jarraibideen berri eman du Eusko Jaurlaritzak

>>> Eusko Jaurlaritzako Osasuneko eta Segurtasuneko sailburuek uztailaren 12an egingo diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako osasun-jarraibideak azaldu dituzte. Segurtasun-tartea uztea, maskara erabiltzea, eskuak sarri garbitzea, gainazalak eta leku jendetsuak garbitzea eta desinfektatzea eta jendea pila-tzea eragozteko dira jarraibide nagusiak, "herritarrek botoa emateko eskubidea berme osoz gauzatu ahal izateko, osasun-egoerak eskatzen dituen segurtasun-berme guztiekin".

Aurreratu dutenez, hauteslekuak ez dira adinekoen egoitzetan kokatuko. Bestalde, hauteskunde-mahaia osatzen duten pertsonen arteko segurtasun-tartea (1,5 m) bermatuko da, bai eta botoa ematera joaten diren pertsonen artekoa ere lurrian jarritako marken bidez; marka horiek norberaren txanda iritsi arte itxaroteko lekua seinaleztatuko dute. Berdin jokatu da altzarien kasuan ere: boto-kutxa, kabinak, eta abar. Antolaketa-neurriak hartuko dira hauteslekurako sarbideetan ordena mantenduko dela bermatzeko. Horretarako, sarrera-irteerak antolatuko dira jendea pila-tzea eragozteko. Ilarak sor-

tzen badira, hautesle zaurgarriak (65 urtetik gorakoak edo haurdun dauden emakumeak) lehenetsiko dira, hauteskunde-mahaietan ahalik eta denborarik gutxien igaroko dutela bermatzeko. Bozketak-egunaren aurretik, instalazioak desinfektatuko dira. Aireztatuta egongo dira hauteslekuak, eta mahaiak, boto-kutxak eta kabinak tarteka garbituko dira, bai eta komunak, atean heldulekuak, eskudelak eta sarri ukitzen diren bestelako gainazalak ere. Hauteskunde-mahaiak ixten direnean, lokalak garbitu eta desinfektatuko dira, eta sarreran nahiz mahaietan gel hidroalkoholikoa egongo da, bai eta mukizapi eta bestelakoak botatzeko zakarrontziak ere.

Hauteskunde hauetan aurrekoetan baino 41 hautesleku gehiago egongo dira: 6 gehiago Araban; 27 gehiago Bizkaian eta 8 gehiago Gipuzkoan. Horrez gainera, uztailaren 12an egongo diren 761 hauteslekuetatik 100ek beste kokaleku bat izango dute. Herritarrek, beraz, arretaz irakurri beharko dute EINK etxeetara bidaliko duen errolda-txartela bertan jartzen baitu hautesle bakoitzak zein hautesleku eta mahaitan eman behar duen botoa.



3.400 lagun zeuden Lanbiden izena emanda maiatza amaieran

>>> Debarreneneko Gipuzkoako udalerrietan (Eibar, Elgoibar, Mendaro, Soralue eta Deban) azken lau urteotako langabetu kopururik altuena (3.400) erregistratu dute maiatzaren amaieran Lanbideren bulegoan. Hortik kanpora geratuko lirake Ermua eta Mallabiako langabetuak, horiek Durangoko bulegoari dagozkio eta. Aurreko hilabe-

teko datuekin alderatuz gero, apirilean baino 101 langabetu gehiagok eman dute izena Lanbiden. Langabetu horietatik 1.891 emakumeak dira eta 1.509, berriz, gizonak. Oraingo langabetu kopurua 2016ko irailean gainditu zen azkenengoz: orduan lana bilatzeko bulegoan izen-emandakoak 3.516 izan ziren. Lanbideren bulegoa astelehenean zabaldu zuten berriz.

Martin Egiguren "El Conquis" saiotik kanporatu dute

>>> ETB2ko *El Conquistador del fin del mundo* asteleheneko saioan amaitu zuen bertan egindako ibilbidea Martin Egigurenek, kanporaketan azkena geratu ondoren. 19 urteko eibartarrak saioaren erditik aurrera egin du, baina finalera ailegatu aurretik eman behar izan du amore.



Lesio eta gorroto delituengatik atxilotuta

>>> Ertzaintzak 45 urteko gizon bat atxilotu zuen zapatu arratsaldian Untzagan. Poliziaren arabera, gizonak beste pertsona bati eraso egin zion, "beltz madarikatua" eta "pateran etorri zarete" bezalakoak

esanda eta aurpegiak kolpatuta. Ertzainak lasaitzen saiatu ziren, baina asaldata eta euretako bati lepotik heldu zion. Erasoak atxilotu egin zuten, lesio eta gorroto delituengatik eta ertzainaren aurkako atentatuagatik.



RAY MUÑOZ

Euskadi osoa 3. fasera pasatzea eskatu dute

>>> Estatuko 3. fasearen behin betiko baldintzak ezagutu bitartean, Eusko Jaurlaritzak "Euskadiren errealitatek hurbilago dagoen ezagutza batetik eratorritako berezitasunekin aurrera egitea" proposatu dio Osasun Ministerioari, Euskadik, oro har, deskonfinamenduen "hirugarren fasera" aurrera egin dezan, Iñigo Urkullu lehendakaria buru duen "Bizi Berri" planaren arabera.

Jaurlaritzaren proposamenaren lehen puntuan mugikortasunari eta ordu-tarteei lotutako eskaerak bildu dituzte: mugigarritasun mugagabea EAeko lurralde historikoen artean; autonomia erkidego ezberdinetako mugakide diren lurraldeen eta probintzien arteko mugikortasuna, baldin eta fase berean badaude; jarduera

fisikoa garatzeko adinekoentzako eta ahulentzako lehentasunezko tarteari eustea; eta mugikortasuna Euroeskualdean (Euskadi-Akitania-Nafarroa).

Garraioari dagokionez, "100eko maiztasunak eta edukierak garraio publikoaren modalitate guztietan, nahitaezko maskararen erabilerarekin eta ausazko tenperatura kontrolak geltoki itxietan", proposatu du Jaurlaritzak.

Horrez gain, saltoki, dena eta merkataritza-guneetako edukiera %60a handitzea nahi dute, eremu komunak eta jolas-espazioak barne. Taberna, jatetxe eta elkarte gastronomikoetarako, berriz, edukiera-mugarik ez ezartzea eskatu dute; barruan zein terrazetan mahaien arteko 2 metroko distantziarekin nahikoa dela

erizten diote. Gainera, barrako zerbitzua baimentzearen aldekoak dira, "gutxienez 2 metroko tartea utzita bezeroen edo bezero-taldearen artean".

Hotel eta ostatu turistikoetarako, %50eko edukiera baimentzea eskatu dute, baita mendi-ibiliak ere, "gehienez 30 laguneko taldeentzat". Baimendu nahi dituzten beste batzuk liburutegiak (%50eko edukierarekin, mailegurako eta irakurketarako), zinema, antzoki eta auditorioak (aurrez ezarritako besaulkiarekin eta edukiera %50ean), hitzaldiak eta jardunaldiak leku itxietan (%50eko edukierarekin, gehienez 80 lagun), gune irekietako ekitaldiak (%50eko edukiera, gehienez 1.000 lagun, eserita eta 2 metroko distantziarekin); goi mailako arraun eta pilotan, entrenamenduen hasiera. Haur eta gazteen eguneko aisialdiko jarduerak: %50eko edukiera eta, gehienez, 80 lagun barruan eta 200 espazio irekietan.

AUTUAN

JUBILATU ETXEAK BERRIZ ZABALIK

Uztzagako jubilatu etxea zabaltzen hasi dira, 09:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 21:30era eta taberna ere martxan dago. Eta Ipuruako jubilatu etxeok ere masajista eta ileapaindegi zerbitzuak eskainiko dituzte, aldeztu aurretik hitzordua eskatuta: masajistarekin txanda eskatzeko 678659138 telefonora deitu behar da (Agustin) eta ileapaindegirako 626090529 telefonora (Isabel). Podologia zerbitzua ekainaren 8an hasiko dira ematen.

DENDA ETA TABERNEI LAGUNTZEKO KANPAINA BERRIA

Ekainaren 8an abiatuko du Udalak Eibarko merkataritza, ostalaritza eta beste establezimenduetarako erosketa-bonoen ekimen berria, "Nik Eibarren erosten dot" kanpainaren baitan. Koordinazio eta kudeaketaz Eibar Merkataritza Gune Irekiaren (EMGI) bulego arduratuko da, baina oraingoan parte hartu nahi duten establezimendu guztiek (EMGI-ko kide ez direnek ere) izango dute horretarako aukera, eskatzen dituzten baldintzak betez gero.



ELEKTRIZITATEA
Elurki s.a.

Arragueta zeharbidea, 1
Tel. 943 12 05 95 / 72
Faxa. 943 20 38 53
transfab@electricidadurki.com

INSTALAZIOAK
BOBINATUAK
TRANSFORMADOREAK

Ego gain, z/g

BOSKA

Ongi etorriak zuen etxera!!

943 20 67 53



Orain dela urtebete horrelakoak ginen

Amañako Lau Bide tabernak antolatuta, Feria Rociera ekitaldia egin zuten maiatza amaitzeko. Urkiko jaiek asteburu guztia hartu zuten, kontzertu nagusiak AC/DCri tributoa eskainiz. Biraka eta Dantza Garaikide taldeek urte amaierako emanaldiak eskaini zituzten. Probintziako Athletic-zaleek Gipuzkoa Zurigorriaren laugarren edizioa Eibarren egin zuten, Peña Txinberak antolatuta. Irailaren 14ra arte iraungo zuen kanpoko igerilekuetako denboraldia hasi zen. Atzegi elkarteko familiek eskualde mailako jardunaldia egin zuten. Ramadanaren amaiera ospatzeko jaia egin zuten Untzagan. Pello Berrizbeitia eibartarra nagusitu zen Galdaramiño igoeran. Javier Nuñez PPko alkategaiak alderdian baja eman eta politika laga zuen. Sanjuanak aurretik urtero egiten den Garagardo Feriaren XVI. edizioak atek ireki zituen. Eibarko mendi itzulia egin zuten Eibarko Klub Deportiboaren eskutik.

Argazkiak: 1- Urkiko jaiak. 2- Atzegiren eskualdeko jardunaldia. 3- Galdaramiño igoerako podiuma. 4- Ramadanaren amaiera ekitaldia. 5- Kanpoko igerilekuen denboraldi hasiera. 6- Probintziako Athletic-zaleen egun handia Eibarren.



Domekan plazak aldarriz bete nahi ditu Hamaika Gara mugimenduak

Erreferendum bidez erabakitzearen aldeko atxikimendu eta konpromiso pilaketa masiboa da Hamaika Gara egitasmoa. Gure Esku herri mugimenduaren eta alor aniztetako eragileen arteko elkarlana eta sarea ditu oinarri eta domekan mobilizazio bateratua egitera deitu dituzte herritarrak: bakoitzak bere aldarriak kartoi batean idazteko eta ekainaren 7an, 11:00etatik 14:00etara, plazara eramateko eta lurrian lagatzeko eskatu dute. Horren bidez, herrietako eta hirietako plazak "berreskuratu eta aldarriz bete" nahi dituzte.

Etorkizun politikoa erreferendum bidez erabaki ahal izateko, hainbat eragilek sinadura bilketa bat abiatu zuten martxoaren 11n, Hamaika Gara izenpean. Gure Esku erabakitze eskubidearen aldeko dinamika abiatu zuen eta 24 eragile dira orain sustatzaileak. Baina, egitasmoa aurkeztu eta egun gutxira, osasun krisiak den-dena baldintzatu zuen, baita ekimena ere: sinadura bilketa aldi batez sustatzeari laga zioten, eta kalean egitekoak zituzten mobilizazioak udazkenara atzeratzea erabaki zuten sustatzaileek.

Orain, ordea, mobilizazio batera deitu dute. Izan ere, herritarren aldarrikapenek plaza publikoa berreskuratzeko garaia dela uste dute: "Premiazkoa da bizi dugun eta datorren krisiari Euskal Herritik eta guztion artean erantzun behar diogula adieraztea, eta tokiko erabaki burujabeak aldarrikatzea".

Hori dela eta, Hamaika Gara ekinaldian bat egindako eragileek "herri erantzun bat" emateko deia egin dute. Hain zuzen, herritarrek euren aldarriak kartoi batean idazteko eta ekainaren 7an, 11:00etatik 14:00etara, plazara eramateko eta lurrian lagatzeko eskatu dute. Horren bidez, herri eta hirietako plazak "berreskuratu eta aldarriz bete" nahi dituzte. Izan ere, plaza publikoa berreskuratzeko garaia dela pentsatzen dute: "Premiazkoa da bizitzen ari garen eta etorriko den krisiari Euskal Herritik eta guztion artean erantzun behar diogula adieraztea, eta tokiko erabaki burujabeak aldarrikatzea".

Gainera, iragarri dute domekako mobilizazio horren ondoren pixkanaka Hamaika Gara erreferendumaren aldeko sinadura bilketari ekingo diotela berriro, eta udazkenetik aurrera kanpaina indartzeko asmoa erakutsi dute. Bitartean,

Aldarriak kartoi batean idatzi eta, domeka goizean, Untzaga plazara eraman eta han lagatzea eskatu diote jendeari

hamaikagara.eus web orrian ere badago sinatzeko aukera.

Zurekin, hamaika gara Erreferendumaren aldeko mugimendutik adierazi dutenez, "gure bizitzetan eta komunitatean eragiten duten auziei buruz erabakitze eskubide osoa dugu eta, indarrak batzen baditugu, beharrezko tresnak geureganatzea lortuko dugula sinesten dugu. Argi dugu herri bezala aurrerapauso eraginko-

rrak egin nahi baditugu, ezinbestekoa dugula elkarrekin, herri bezala ekitea: herritarrak, eragileak eta erakundeak eskutik helduta. Sinesmen horri helduta, harri sendoa jarri nahi dugu bide berri horretan. Horregatik, Gure Esku herri mugimenduaren eta alor aniztetako eragileen arteko elkarlana eta sarea ditu oinarri egitasmoak".

Esandakoaren arabera, Hamaika Gara mugimenduak epe luzeko begirada dauka eta hau abiapuntua litzateke: "Herritarrok gure bidean aurrera egiteko indarra emango digu ekimen honek. Era berean, eskaera eskubidearen bidez, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan jasotako sinadurak Eusko Legebiltzarrean entregatuko ditugu eta Nafarroan jasotakoak Nafarroako Parlamentuan. Behin sinadura bilketa amaitutakoan, elkarrekin, anbizioz eta epe luzeko begiradarekin emango ditugu hurrengo pausoak". ■

<<< ZALDIBAR ARGITU • Herri plataforma >>>

“Koronabirusa baliatu dute Zaldibarkoa bigarren mailako arazo lokal bat bezala saltzeko”

Bihar, zapatua, lau hilabete beteko dira Zaldibarko zabortegia jausi zenetik. Lau hilabete daramatzate lurpean Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran langileek. Lau hilabete gertatutakoa argitu gabe. Egoera salatzen duen Zaldibar Argitu plataformak manifestazioa deitu du biharko, 18:00etan, Untzagatik hasita. Segurtasuna bermatuko da.

Bihar lau hilabete beteko dira Zaldibarko zabortegia erori zenetik. Zer bait argitu da?

Gure sententzia da hasieratik ia ez dela ezer aldatu eta ez zaiela kasurik egin hasierako aldarrikapenei. Albertok eta Joaquinek hor jarraitzen dute, ez da erantzukizun politikorik hartu, eta, osasunaren aldetik, ez dakigu zer ari diren egiten bertan zegoen zaborrarekin. Eitzagako bizilagunek salatzen dute egunero kamioi pila bat ateratzen direla eta ez dakite oso ondo zer ari diren eramaten. Gainera, sasoi batean jarri zizuten neurketak egiteko makinak kendu egin dituzte, eta ez dabilta ikertzen arazo guzti honek lurrean eta errekan izan duen eragina.

Koronabirusak Zaldibarko kasua ahazten lagundu duela uste duzue?

Koronabirusarekin foku mediatikoa desbideratu dela argi ikusi dugu. Martxoaren 12an bertan behera laga behar izan genuen arratsaldeko manifestazioa eta ordutik gaia bigarren edo hirugarren plano batera pasa da. Uste dugu propio gertatu dela, tartean interes politikoak daudelako eta alderdi batzuei ez zaielako interesatzen Zaldibarkoari buruz gehiegi berba egitea. Koronabirusa baliatu dute Zaldibarkoa bigarren mailako arazo lokal bat bezala saltzeko eta modu ezkutuan eramateko.

#JoaquinetaAlbertogogoan

ZALDIBAR ARGITU
LANGILEAK, OSASUNA
ETA ERANTZUKIZUNAK

ORAIN!

MANIFESTAZIOA
EIBARREN

Ekainak, 6 larunbata
18:00
Untzagatik

Ekarri maskarilla,
eta banderola baldin baduzu

Albertoren eta Joaquinen familiekin harremana duzue?

Albertoren senide bat plataformako kidea da eta bera da familiaren eta gure arteko lotura. Helene Alberdi Albertoren ilobak hainbat elkarrizketatan esan du engainatuak sentitzen direla, langileak hortik ateratzeko egin beharreko guztia ez dela egin eta haserre daudela.

Erakunde publikoekin baduzue harremanik?

Zaldibar Argitu herri ezberdinetan antolatzen da eta, gero, batera jarduteko koordinatzen gara. Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta hainbat udal daude arazo horren inguruan eta erakunde bakoitzarekin dagoen harremana ezberdina da, baita euren erantzuna ere. Jaurlaritzak eta Aldundiak bizkarra eman digute, ez digute kasurik egin.

Eta Verter Recyclingek?

Eurekin ez dugu harremanik. Verter enpresa pribatua da eta Durangoko epaitegian prozesu judiziala zabalik dute. Hor argituko dira Verterren erantzukizunak, baina erantzukizun nagusia politikoa da. Higiene demokratikoagatik dimisio batzuk egon behar-



“Jaurlaritzak eta Aldundiak bizkarra eman digute, ez digute kasurik egin”

ko lirateke mahai gainean. Guk erakundeei begiratzen diegu gehiago Verterri baino, Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuaren ardura delako Verterrek zabortegia kudea-

“Albiste ona da Europar Batzordeak Zaldibarren gertatutakoa ikertzea”

zea eta irregulartasun guztiak onartzea.

Europar Batzordeak Zaldibarko kasua ikertzeak ate berriak ireki ditu?

Albiste ona da eragile independente batek kasua ikertzea. Zaldibarko eskandalu publikoa dela eta horren larritasuna muturrekoa dela salatu dugu hasieratik, hainbat elementu batzen dituelako: ustelkeria, hildakoak, jendearen osasunarekin jolastea negoziatzen egiteko... Jaurlaritzak eta Aldundiak gertatutakoa akats tekniko bat izango balitz bezala tratatu nahi izan dute, baina erabaki politikoen ondorioa izan dela uste dugu, eta Europar Batzordearen ikerketak gure ideia berresten du.

Uztaileko hauteskundeek eragina izan dezakete Zaldibarko kasua argitze aldera?

Plataforma ez da alderdi batekin lotuko eta hauteskundeetan sortuko den alderdien gatazketatik kanpo gaude, baina argi dugu alderdi batzuei ez zaiela interesatzen Zaldibarri buruz berba egitea. Zaldibarko gaia hauteskunde kanpainan presente egotea interesgarria da, gaurkotasanari eusteko eta horren inguruan eztabaidatzeko. Hala ere, gertatutakoa argitzea eta aurrera begira erabaki estruktural batzuk hartzea da gure helburua, Zaldibarko berriz ez gertatzeko.

XARE
emakume moda

www.xaremoda.com

Zuloagatarren, 1
943 53 67 64

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

CAPI

www.capiestetica.es

BEGI ingurune tratamendua

1 LIPOLITIKO ANTIZELULITIKOA

2 BIRMOLDAKETA BIZGARRIA

3 EUSGARRIA

BETILE LUZAPENAK

ESKLUSIBITATEA PRIMIZIAN TEKNOLOGIA BERRITZAILEA

LIFTING

San Carlos de Bolivar Buenos Aires probintzian dago, Argentinako panpan. Han jaio zen Julian Gonzalo Iroz, aspalditik Eibarren bizi den eibartHARTUa. San Carlos de Bolivarrek 26.000 biztanle inguru ditu eta nahiko toki isolatua da. Buenos Aires hiriburua 300 kilometro-ra dago eta hurbilen dagoen herria, Olavaria, 100 kilometro-ra. "Bikurba besterik ez dade errepide horretan". Bolivar baserri giroko herria da, eta nekazaritza eta abeltzaintza dira diru-iturri nagusiak.

Nafarroatik Argentinara

Julianen amak Iroz du abizena, bere jatorri euskaldunaren lekuko. Familia Kasedakoa du, Nafarroa Garaiko hego-ekialdeko udalerrri txiki batekoa. Bere familiaren jatorriari esker Julianek espainiar hiritartasuna lortu zuen eta horretaz baliatu zen Euskal Herrira etortzeko, baina hona iritsi aurretik bazuen Euskal Herriaren berri. "Bolivarren Euskal Etxe eta Nafar Etxe bana dago. Jendea oso euskalduna sentitzen da". Bere ama Nafar Etxeko zuzendaria izan zen.

Engainatuta Eibarrera

La Platan unibertsitate-ikaske-tak egin ondoren, hemen bizi zen txikitako lagun baten deia kasu egin eta, berak dioen bezala, ikasbidaia egin zuen Eibarrera. "Hori bai, pixka bat luzatu da", dio barrez. Etorri aurretik ez zekien ezer Eibarri buruz, bere lagunaren berba batzuk besterik ez. "Telefonoz esan zidan mendira begira bizi zela eta atzean erreka bat zuela, eta neure buruan paisaia ederra irudikatu nuen. Amañako dorreetan bizi zen!", dio barrez. "Engainatu egin ninduen pixka bat". Eibarren lau hilabete egin ondoren Bartzelonara joan zen sasoi baterako, "hura ezagutu nahi nuen". Urtebete egin zuen Katalunian eta gero Argentinara itzuli zen, baina urtebete nahikoa izan zen beretzat: "Hiriburuak hortzak erakutsi zizkidan". Bolivar atsegin du, baina ez zuen hara itzuli nahi. Beraz,

Bizitza berrira ikasbidaia

EKHI BELAR



Espero zuena baino denbora gehiago geratu da Julian Eibarren.

beriz maleta egin eta Eibarrera etorri zen: "Beste ideia batekin itzuli nintzen Eibarrera, burua zabalik eta bizimodu berri bat hasteko itxaropenarekin". Horrela gertatu zen eta urte asko

daramatza hemen. Hori bai, Argentinako doinua galdu barik.

Herria barrenean

Herri nahiko txikikoa izanik eta hiri handietan bizi ondoren,

Eibarren bizitzeko toki aipatua aurkitu du Julianek. "Nire haurtzaroa ederra izan zen, ez da hiri handietan bizi den jendearena bezalakoa. Herri txiki batekoa izatea barrenean daramat eta Eibarren antzeko bizimodua ikusten dut". Beraz, eroso bizi da hemen, etxean bezala. Gainera, familia osatu du Eibarren eta bere semearentzat aukera asko ikusten ditu hemen. Argentinan, ordea, ez. Herrialdeak kanpo-zor handia du, segurtasun-arazoak dade, korrupzioa... "Argentinarrak ondo egongo garela uste dugu beti, baina gorabehera handiak ditugu etengabe. Hain herrialde aberatsa izanik, ez dakit nola dituen hain politikari eskasak. Argentinarrak etengabeko arriskuan bizi gara. Korralitoan gertatu zen bezala, egun batean bankuan dirua daukazu eta hurrengo egunean, bat-batean, ez duzu ezer. Hala ere, beti egiten dugu aurrera".

Gorriurdina beti


Urtarrilean, Argentinan uda denean, hara joaten saiatzen da. Gurasoak eta ania biak ditu han, baita lagunak ere. Ez du hara bizitzera joateko asmorik, baina bere jendearen falta sumatzen du. Foballzale amorratua, San Lorenzo de Almagro taldeko zalea da eta lotura horri gogor eusten dio Argentinan hurbilago sentitzeko: "Gainera, bere kamiseta gorriurdina da, Eibar FT-rena bezala, eta Euskal Herriarekin lotura handia du. Euskaldunen taldea da". Besteak beste, jatorri euskalduneko Pedro Bidegain taldearen presidente garrantzitsua izan zen (foball zelaia bere izena darama) eta Gerra Zibilaren ondorioz erbestera joan ziren hainbat euskaldunek jokatu zuten bertan. Tartean, Isidro Langara goleatzaile handiak eta Angel Zubietak. Taldea Lorenzo Massa jesuitak sortu zuen eta 'beleak' deitzen diete, "apaizen sotana beltzaren gatik". Nola ez, jesuitekin lotura duen talde argentinarra izanik, Francisco Aita Santua zale sutsua da.

“ Mono viejo no trepa árbol seco ”

“Jakituria arituaz lortzen da”

...eta kitto!
1144.zenbakia

...eta kitto!
1144.zenbakia




Euskararen olatua indartsu ailegatu da Eibarrera

2020. urtea Tantanez Tantan edo "Gantxila Egunaren" urtea dugu. 2008an Euskararen aldeko olatua Eibarrera lehen aldiz iritsi zenez geroztik ez du kalerik egin, eta urte bikoitietan etorri izan da. Aurten, denok dakigun moduan, urte berezia bizi dugu, ezohikoa, baina Eibarko euskalgintza ez da kokildu, eta eibartarrok euskararen aldeko olatu indartsua osatu dugu, eta ozen oihu egin: Tantanez Tantan, eibartarrok euskaraz blai!

Gabonak amaitu orduko bazebiltzan euskalgintza osatzen duten herriko taldeak (ikastetxe, euskaltegi, elkarte, norbanako... eta parte hartu nahi duen oro) 2020ko Tantanez Tantan eguna antolatzen. Etorri zen COVID-19a eta hankaz gora jarri zuen denon bizitza, eta asko oharatu ziren ez-ohiko egoera honetan euskara zokoratuta gelditzeko arriskuan egon zitekeela. Antolatzaileek hala diote: "Egoera zaila bizi dugula ezin dugu ukatu, baina euskarak ezin du galdu; izan gaitezen tanta, izan gaitezen olatu, eduki dezan euskarak non oratu".

Eta izan du non oratu, bai. Euskalgintzako taldeek deia egin zuten herritarrei, euskararen olatua osa zezaten, eta erantzuna bikaina izan da. Jasotako bideo guztiekin bilduma polita osatu dute. Hemen duzue emaitza ikusgai: <https://youtu.be/jUO1Qv2toRQ>





>>> **Nerea Ariznabarretak** ipuin musikatu zoragarriak eskaini zizkien guraso berbalagunei joan den astean. Familian ikusteko moduko ipuin horietan Mariano eta hainbat musikatresna izan ditu lagun. Hemen dituzue ikusgai: <https://youtu.be/nmaHbsVhctw>



Ipuin musikatuak eta magia

Eta aste honetan **Tor** magoak ekarri dizkigu hainbat trikimailu Eibarrera, online horiek ere. Guraso berbalagunentzat egin duen saioa irekita dago gaurtik aurrera nahi duen guztiarentzat. Lotura honetan duzue ikusgai: <https://youtu.be/AA3xLM3Mzmo>

<<< SARA LAMAS Gurasoak Berbetan >>>



Alazne eta Jone etxeko sukaldean errezeta gozoa prestatzen.

Urteak daramatzate Sara eta Igor senar-emazteak, Jone eta Alazne alabekin batera, Gurasoak Berbetan programan. Itxialdian ere ...eta kitto! Euskara Elkarteak hamaika proposamen egin dizkie, familiargiroan euskaraz jolasteko eta ondo pasatzeko.

Nola bizi izan duzue itxialdia zuen etxean?

Hasieran galduta geunden, egoera berrira egokitzen nahikoa lan genuen. Handik egun batzuetara konturatu ginen

etxean gero eta gaztelera gehiago entzuten zela, telebistan batez ere. Horregatik oso ondo etorri zaizkigu Gurasoak Berbetan egitasmotik proposatu dizkiguten ekimenak.

Zer iruditu zaizkizue ekintzak?

Guk oso ondo pasatu dugu, familia osoak hartu du parte, eta gauza asko egin ditugu: bingoa, eskulanak, errezetak... Interneten bilatu ditugu osagaiak, materialak, ideiak... denon artean eta euskaraz! Oso aberasgarria izan da.

<<< JOSE RIVAS Bebetan >>>



Ostiral goizetan elkartzen da bere taldearekin Jose, Kultu tabernan (argazkian goian, eskuman ikus dezakezue). Orain arte ezin izan dute aurrez aurre elkartzeko, eta ...eta kitto!-k eskainitako online saioetan gogotsu jardun du Josek.

Zelako esperientzia izan da euskaraz online praktikatzearena?

Aurrez aurreko taldearen falta handia igarri nuen hasieratik eta, beraz, online saioak asko eskertu ditut. Izugarritzko aukerak iruditu zait, eta, gainera, jen-

de berria ezagutu dut. Konexio guztiak WhatsApp egin ditugu, batzuetan moztu egiten zen, baina oso ondo moldatu gara.

Lagungarria izan da?

Oso. Euskara ikasten ari naiz eta itxialdian, etxean, zaila egiten zitzaidan euskaraz berba egitea; beraz, oso ondo etorri zait. Mintzapraktikak, aurrez aurrekoa edo online, beldurra eta lotsa gainditzen laguntzen dit, eta hitz egiteko hori da garrantzitsua. Askok eskertu dut ...eta kitto!-ren aukera.

Sare sozialetako mezuak ere Euskaraz Primeran!

Dendariek, tabernariak, eta, orokorrean, zerbitzuak ematen dituzten enpresek ondo dakite zeinen garrantzitsua den bezeroarekin harreman zuzena izatea. Baina oraingo egoera honek aurrez aurre harremanak asko zaildu ditu eta sare sozialek berebiziko garrantzia eta erabilgarritasuna hartu dute. Horregatik ...eta kitto! Euskara Elkarteak bultzatzen duen #Euskeraz Primeran! ekimenetik sare sozialetan (Facebook, Instagram) argitaratzen dituzten esaldi labur guzti horiek euskaraz ere argitaratzera animatu nahi dituzte. Momentu estrategikoa da, bertakoaren aldarrikapena egiten ari gara denok, eta euskara ezin dugu alde batera utzi.

Establezimenduek erabili ohi dituzten mezuak aintzat harturik, esaldi-eredu batzuk prestatu ditu ...eta kitto!-k. Zerrenda



horretatik nahi den mezua har daiteke, eta, horrela, herriko establezimenduek Facebooken edo Instagramen jarri nahi dituzten mezuak euskaraz jartzeko aukera izango dute. Hala ere, zerrenda horretan agertzen ez den bestelako mezu edo testurik euskaraz nahi izanez gero, gogoratu ...eta kitto! Euskara Elkarteak urte osoan eskaintzen duela zerbitzu hori, doan.

Animatu, eta jarri itzazue zuen mezuak sareetan euskaraz! #EibarrenBadakagu eta #Euskeraz Primeran!

“Sare sozialetan mezuak euskaraz jartzera animatu nahi ditugu zerbitzuen sektoreko enpresak. Momentu estrategikoa da”

<<< GURIDI TABERNAko lantaldea >>>

“Orain oso bestelakoa da lan egiteko modua”

Guridi taberna gure herriko lehenetarikoa izan zen atea ixten, martxoaren 13an itxi zuen, eta maiatzaren 26an zabaldu du berriz, baina ez lehengo moduan, jakina. Gaur egun bizi dugun egoera beste era batekoa da, eta horretara egokitu beharra dugu denok. Guridin euskara normaltasun osoz erabiltzen dute, euskarari lehentasuna eman izan diote betidanik; orain egoera ezberdina da, eta eragina dauka gure bizimoduan, baita euskararengan ere. Egoeraren gainean eta euskara sustatzeko bultzatu diren ekimenen inguruan galdetu diegu Guridiko langileei.

Nola izan da tabernara itzulera?

Asteartean zabaldu genituen atea, eta osasun-neurri guztiak bete nahian gabilta egunero. Orain oso bestelakoa da lan egiteko modua, baina momentuz horrela jarraitu beharko dugu, denon onerako izango da-eta.

Euskeraz Primeran! ekimenetik hainbat ekimen bideratu dira euskaraz zokoratuta gera ez dadin, hala nola, #EibarrenBadakagu kanpaina, COVID-19 kartelak... Nola ikusi dituzue horiek guztiak?

#EibarrenBadakagu kanpainarekin oso pozik gaude eta kartelak oso eredu onak dira; guztiok izan behar dugu argi eta garbi segurtasun-neurriak errespetatu behar ditugula, tabernariok zein bezeroek, denok.



Gero eta gomendio gehiago iristen zaizkigu, baina oraindik ez dago finkatuta nolakoa izango den 2020ko denboraldia Gipuzkoako eta Bizkaiko hondartzetan. Pilaketak ezin badira saihestu, Jauraritzak ez du baztertzeko hondartzak ixtea. Agintariak diotenez, hondartzaren erabilera dinamikoak sustatuko da, hau da, hondartzan denbora gutxi egotea, eta bi metroko distantzia ezin bada errespetatu, maskara erabili beharko da.

"Udarak ezberdina izan beharko du, harremanak izateko beste modu batzuk bilatu behar ditugu", adierazi du Nekane Murga Osasun sailburuak, azken egunotan hondartzetan, pasealekuetan eta garraio publikoan izan diren pilaketak eta gero. Segurtasun-distantzia ezin denean ziurtatu, maskara erabiltzea ezinbestekoa dela azpimarratu du beste behin Murgak, "baita hondartzetan ere".

Uztailaren 1ean hasiko da Gipuzkoan hondartza-denboraldia

Gipuzkoako hondartzaren mahaiak aurreko astean adostu zuten uztailaren 1ean emango diotela hasiera hondartza-denboraldiari. Kontzientziazio-kanpaina bat ere hasi nahi du aldundiak, ekainerako eta uztailerako. Kanpaina horren helburua hondartzetan egoteko baldintzen berri ematea da; besteak beste, asko jota bi ordu egon daiteke hondartzan, eta segurtasun- eta higiene-neurriak errespetatu behar dira. Horrek bat egiten du Eusko Jauraritzatik azken egunotan eginiko adierazpenekin. Jauraritzak hondartzaren erabilera «dinamiko» sustatu nahi du, hau da, hondartzak bainatzeko, paseatzeko eta kirola egiteko erabili behar direla, eta ez denbora luzez etzanda edo geldirik egoteko.

Hondartzan unean uneko okupazioa kalkulatzeko aplikazioa prestatuko du Gipuzkoako Foru Aldundiak eta ekaina-

2 metroko tartea kalean... eta hondartzan

Aurtengo uda desberdina izango da, zalantza barik. COVID-19ak goitik behera aldatu du egiten dugun guztia. Elkartze eta bizitza normala egiteko desiatzen gaude, baina adituak behin eta berriro esaten ari dira ezinbestekoa dela 2 metroko distantziari eustea. Hondartzetarako ezarritako jarraibideak errespetatu ditzatela eskatu die Osasun Sailak herritarrei: segurtasun-tartea zaintzea, hondartzetan egonaldi laburrak egitea (2-3 ordu), jende pilaketak saihestea eta adi ibiltzea.



Hondartzaren erabilera «dinamiko» sustatu nahi da, hau da, horiek bainatzeko, paseatzeko eta kirola egiteko erabiltzea, eta ez etzanda edo geldirik denbora luzez egoteko

ren 18rako erabiltzeko moduan egotea espero dute. Mugikorretarako aplikazioak hondartzaren mapa izango du, eta horietako bakoitzari kolore bat ezarriko diote, jende-dentsitatearen arabera. Horretarako, udalek aurrez adostu beharko dute zenbatekoa izango den hondartza bakoitzaren gehieneko edukiera. Aplikazioak, edukieraren berri emateaz gain, itsasaldien eta erabilera-baldintzen inguruko informazioa ere emango du.

Udalerrri bakoitzaren esku

Aurtengo denboraldia nolakoa izango den erabakitzen den bitartean, hondartzaren erabilera-irburuzko neurri eta arauak zehaztu dituzte egunotan kostaldeko udalek. Udalerrri bakoitzaren esku geratu da hondartzaren erabilera arautzea, eta guztiek ez dute berdin jokatu.

Gipuzkoako hondartza gehienetan eguzkia hartzeko etzan gaitzke. Hala ere, Orioko eta Getariako Udalek iragarri dutenez, euren hondartzak "dinamikoak" izango dira, hau da, paseatzeko, bainua hartzeko eta kirola egiteko erabiliko dira.

Bizkaian erabilera murriztagoa

Bizkaiko herrien kasuan, hondartzetako erabilera murriztagoa da; izan ere, udal gehienek etzanda egoteko aukera debekatu egin dute. Neurriak edota arauak "gutxienez" ekainaren 15era arte egongo dira indarrean, hondartzaren denboraldia hasi arte. Egun horretatik aurrera, Bizkaiko hondartza bakoitzak Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ertzaintzak onartutako protokoloa eta kontingentzia-plan propioa edukiko ditu. Bitartean, udalerririk lege eta arauak errespetatzeko eskatu diete herritarrei, eta adi ibiltzeko, egoera aldakorra da-eta. Arauak eta neurriak ezartzekoan zein gomendioak ematekoan, udal bakoitzak irizpide propioa izan du. Adibidez, Lekeitioko Udalak hartutako erabakiaren arabera, "bainua hartu, paseatu, eta uretako zein banakako kirolak egin daitezke,

...eta kitto!
1144. zenbakia

...eta kitto!
1144. zenbakia

baina ezin da eguzkia hartzen egon". Kostaldeko herrien artean, neurri murriztaileenak Ondarroan ezarri dira, eta astegunetarako eta asteburuetarako arau eta neurri ezberdinak ezarri dituzte. Hala, asteburuetan eta marea goian dagoenean ezingo da eguzkia hartzen egon, eta ezingo da kirola uretatik kanpo egin. Astegunetan eta asteburuetako itsasbehera-orduetan, aldiz, uretatik kanpo banakako kirolak eta kontaktu fisikorik behar ez dutenak egin daitezke (palak, korrika...), beti ere horiek egiteko nahikoa espazio baldin badago. Ondarroako udal-ordezkariek esan dutenez, "pilaketak saihestea eta nahi duen orok hondartzaz gozatzea" dira hondartza dinamikoaren helburuak. Formula hau Bizkaiko hondartza gehienetan

erabiliko da larrialdi-egoerak irauten duen bitartean. Horrez gain, beste herri batzuetan bezala, oinezkoentzako sarrera eta irteerak markatu dituzte, noranzkoaren arabera.

Herri txikiek baliabide gutxi

Aurreko astean, 2. faseko lehen egunetan, hondartzetan izan ziren jende pilaketek zeresana eman zuten. Hor daude, esate baterako, Debako tren geltokian grabatutako irudiak. Gilen Garcia Debako alkateak azaldu zuenez, "Eusko Trenen geltokian soilik gertatu ziren pilaketak; gainerakoan, hondartzan distantziak errespetatu dira". Izan ere, Garciaeren arabera, trenetako edukiera ez da mugatu, eta bizi izan dugun egoerak "jendea kalera irtetera bultzatu du". Debara joaten



direnei "egoera zertan bilakatu daitekeen kontuan izatea" eskatu die Debako alkateak.

Bien bitartean, Debako Udala hondartza dinamikoaren ereduaren alde dago; oraindik ez du neurri zehatzik hartu, baina uztailera begira ari da eredu

hori antolatzen. Edonola ere, herriko alkateak zera ohartarazi du: "herri txikiek ez ditugu horrenbeste baliabide. Irizpideak jartzea erraza da, baina giza baliabide edo baliabide ekonomikorik gabe oso zaila da".

Igerilekuak zabaltzeko lanean >>>

Oraindik data zehatzik ez badago ere, Ipuruako kanpoko igerilekuak irekitzeko asmoa dauka Eibarko Kiroletako Udal Patronatoak. Igerilekuak osasun- eta segurtasun-berme guztiak zabaldu nahi dituzte, eta irekiera ahalbidetuko duen plana lantzen ari dira.

Joan den barixakuan bildu zen Patronatoko zuendaritzataldea, eta "gobernuak ezarritako segurtasun-neurri guztiak aztertzen eta kontingentzia-plan bat lantzen ari gara. Zaila da, baina gure asmoa igerilekuak zabaltzea da", azaldu digu

Felipe Zamakola Kirolo Patronatoko zuzendariak.

Igerilekuetan ere ezinbestekoa da 2 metroko distantziari eustea, ikerketa guztiak diotenez hori baita COVID-19ari aurre egiteko bidea, "baina denok dakigu nolakoa den Ipuruako igerilekuetan dugun espazioa". Gainera, aforoari eta bete beharreko beste neurri eta arauak burozko arauak etengabe ari dira aldatzen, "eta horrek ere ez du asko laguntzen". Dena dela, uda honetan igerilekuak zabaltzeko ahalegin guztiak egingo direla jakinarazi dute.



Ipuruako kanpoko igerilekuak zabaldu ahal izateko lanean dihardu Eibarko Udal Kirolo Patronatoak.

CORREDURIA COSTAMAR

AUTOAK	ISTRIPUAK	KARNET KENTZEA
ETXEA	DENDA	ASISTENTZIA BIDAIAK
EHIZA	ENPRESA	E.P.S.V. PENTSIOAK
BIZITZA	AUTONOMOA	INBERTSIOAK
OSASUNA	AURREZPENA	BABES JURIDIKOA
MILETAK	ERANTZ. ZIBILA	KREDITUA ETA BERMEA

Urkitxo Pascaleku, 11 - Solainartea - 20600 - EIBAR
Tel: 943-120437 / Fax: 943-127180 DFGV akia: MS-224
www.correduriacostamar.com costamar@correduriacostamar.com

CERVECERIA Bierhaus

PAULANER MÜNCHEN

- Entsaladak
- Plater konbinatuak
- Bokatak
- Garagardo alemana
- Gosariak, bazkariak eta afariak

Ego-GAIN, 4 943-201329

Golezio 08:00etatik
gozeto 01:00etatik



Euskal Jai berezia benetan

Aurreko domeka eguerdi aldean osatu zena gure herrian Eibarko Klub Deportiboko kultura batzordetik bultzatutakoa. “Bermutaren ordu ezin bereziagoa” eskaini zuten Kezkako Dantza Taldeko dantzariak, Kezkako eta Usartzako txistulariak, gaiteroak eta Jainaga eta Narbaiza trikitilariek. Kalez-kale eta auzoetako plaza txikietan emaldi laburrak eskaini zituzten, hainbat dantza eginez, musika doinuak lagunduta. Dena primeran joan zen eta jendeak errespetuz eta giro onean jarraitu zituen ekitaldi guztiak. Deporrek hainbat lagun jardun zuten antolatzaile-laguntzaile zereginetan eta Udaltzaingoak ere lagundu zuen guztia behar zen moduan ateratzen. Maskaren presentziak, gainera, aurreko domekako ahaztezinago bihurtuko du 2020ko maiatzaren azken domekako jaialdi berezia.

ARGAZKIAK: FERNANDO RETOLAZA



ARGAZKIAK: MALEN JAINAGA





Eneko Sanchez orain dela pare bat urte etorri zen Eibarrera bizitzera. EKHI BELAR

<<< ENEKO SANCHEZ • 'Gaur gurian' YouTubeko kanala >>>

“Guk ondo pasatzeko egiten dugu *Gaur gurian*, hori da helburu nagusia”

Ander Edo eta Eneko Sanchez aspaldiko lagunak dira. Donostiako Loiola auzoan bizi ziren biak (Eneko Eibarrera etorri zen orain dela pare bat urte), Anderren ama eta Enekoren aita Extremadurako herri berekoak dira eta elkarrekin pasatzen zituzten udak han. Mila saltsatan ibili dira elkarrekin. Orain dela hiru urte 'Gaur gurian' izeneko YouTubeko kanala sortu zuten eta, orain, umorez jantzi dute itxialdia.

Nola sortu zenuten 'Gaur gurian'?

Ander eta biok oso lagunak gara. Loiolako jai-batzordean eta auzoko taldean ibili ginen, aisialdi talde bat sortu genuen... Halako batean bideoak egitea okurriratu zitzaigun, eta gure plan normaletan naturaltasunez ateratzen ziren txorakeriak grabatzen hasi ginen, Santiago Bidea egiten ge-

nuen bitartean, eta bideoak Facebookera igo genituen. Jendea gustatu egin zitzaizkion eta gehiago eskatzen hasi zen, baina guk ez genuen bolumena nahi. Euskarazko edukia egitea zen gure nahia, gure erritmora eta bolara, zerbait egiteko go-goa suertatzen zenean. Niretzat hori da klabea. Konpromisoa sortzen denean nolabaiteko behar bat sortzen da eta, lotuta

egonez gero, guk nahi dugunean egin beharrean, bideoak egitera behartuta egongo ginateke. Horrela, uste dut bideoek kalitatea galduko luketela.

Umorearekin edozein gai lantzen duzue?

Bai. Badaude kutsu errebindikatzailea duten bideoak. Adibidez, Donostiako pertsonaia bat sortu dugu, Mikel Man-

tenu. Donostiako hiri-plan-gintzaren parodia da. Gauza da Donostiako auzoak ahaztu egin dituztela eta den-dena zentrorra begira egiten dutela, turismoari begira, eta hori kritikatzeko dugu pertsonaia honen bitartez.

Orain 'Sutan Bang' kolektiboko kideak zarete. Baina zer da zehazki 'Sutan Bang'?

Euskal eduki digitalak sortzen dituen kolektiboa da. Literatura, nazioarteko politika, egunerokotasuna... euskaraz lantzen duen jendea dago.

Itxialdian astero sortu duzue bideo bat. 'Sutan Bang'-en sartu ondoren aro berria hasi duzue?

Nahiz eta orain Eibarren bizi, askotan egoten naiz Anderrekin, baina itxialdian ezin ginenez elkartu, YouTube programara bat egitea okurriratu zitzaigun. Bideo-dei bitartez bada ere, elkartzeko aitzakia da. Sasoi honetan ikusi duguna umore kutsuarekin kontatzea da gure asmoa, eguneroko kontuak, baina egia da eduki politikoa ere baduela. Azken batean, politika edozein gauzatan dago. Baina beno, guk ondo pasatzeko egiten dugu batez ere, hori da helburu nagusia.

Saioa "%50 prestakuntza, %50 inprobisazioa" dela esan duzue bideoaren batean. Nolako da prestakuntza-lana?

Anderrek gidioak egiten ditu, baina gero naturaltasunez egiten dugu berba, inprobisatuz. Anderrek saio bat zuen Info 7 irratiari eta ematen zioten tartea ez betetzeko beldurra zuen. Beraz, ni joaten nintzen berarekin, berbetan hasten ginen eta programa nahi beste luzatzen zen. Orain antzera egiten dugu. Ander ordena da eta ni beste guztia, nahiko zirikatzalea. Ez dira saio honek tarako apropos sortu ditugun pertsonaia, bizitza errealean ere horrelakoak gara, baina saioan izaera horiek puzten ditugu.

Itxialdia amaitu arren, saioarekin jarraituko duzue?

Gutxienez beste saio bat gehiago egingo dugu eta ez dakigu beste hiru ere egingo ditugun. Hala ere, gero beste zerbait etorriko da, ziur. Beti gaudu gauzak sortzen (adibidez, 'Gurian gaur' saioan lehendik grabatutako gauzak jartzen ditugu). Eduki politikoa duen programa batek lana soberan

“Herri honetan umore ezkertiar eta abertzaleak konplexu gehiegi ditu, eta idatzi gabe dauden mugetatik haratago joaten saiatzen gara”



“Nahiago dugu euskaraz egin, gure hizkuntza delako eta euskaraz bizi nahi dugulako”

du hemen. Herri honetan umore ezkertiar eta abertzaleak konplexu gehiegi ditu eta idatzi gabe dauden mugetatik haratago joaten saiatzen gara. Zurrunduta bezala gaude eta askatu egin behar gara.

Euskarazko umoreari ausardia falta zaio?

Estereotipoak apurtu behar dira, geure buruaz barre egiteko gai izan behar gara eta, noski, besteen kontura ere barre egin behar dugu. Alde horretatik, mundu ezkertiarra konplexuz betetako mundua izan da beti. Gure asmoa ez da polemika sortzea, baina bai gauza batzuk salatzea. Zaldibarko zabortearen kasua, Donostiako hirigintza-politika, PNVren jarrera... landu ditugu. Modu askean, loturirik gabe eta euskaraz landutako gaiak eskaintzea da gure nahia ('Sutan Bang'-ek eskaintzen duen guztiarekin batera). Beti

ibili gara auzoa edo herria egiten. Beti pentsatu dugu, gure baloreak auzoarentzat onak badira, zabaldu egin behar ditugula auzoa edo herria hobetzeko.

Euskarak horrelako egitasmoak behar zituen?

Guk honekin ez dugu errentagarratasuna bilatzen eta, funtsa edo helburua, jende askorengana heltzea ez denez, edukiak euskaraz sortzeko apustua egin dugu. Jende askorengana iritsi nahi izanez gero, euskara oztopo izango litzateke, maila globalean euskara ulertzen duen jende gutxi dagoelako eta gure publikoa asko murrizten delako. Jarraitzaile asko edo gutxi izan doble kobratuko dugunez (hau da, zero), berdin zaigu zein hizkuntzatan egin. Ondorioz, nahiago dugu euskaraz egin, gure hizkuntza delako eta euskararen inguruan bizi nahi dugulako.

Erakundeen laguntza jasotzea gustatuko litzazueke edo nahiago duzue konpromisorik ez edukitzea?

'Sutan Bang'-ek badu 'Txondorra' deitzen den gune autogestionatua Donostian eta hainbat egitasmo egiten dituzte dirua ateratzeko. Gu erabat amateurrak gara. Anderri beti gustatu izan zaio argazkigintza eta bideogintza, eta bere materialarekin egiten dugu saioa. Ez dugu aparteko beharrik, baina xeke arabiar batek demaseko soldata ematen badigu, lana utziko dugu (barreak). Baina ez da gertatuko eta ez da gure helburua.

Eibar inspirazio-iturria da zuentzat?

Bai. Adibidez, Hamaika TB-k Korrikaren inguruko umorezko bideoak egiteko enkargua eman zigun eta Amañako pasealekuan hainbat gauza grabatu genituen (ariketak egiten eta abar). Euskal Herri guztiak bezala, Eibarrek nortasun heterogeneoa du. Toki askotatik lanera etorri eta bertako komunitatean erabat integratu den jendea bizi da hemen. Arazoak ditu, herri guztiak bezala, eta alde horretatik zukua atera ahal diogu. Zoritzarrez, Zaldibarko gertatu da. Ez da umoretik lantzeko zerbait, baina landu egin behar da ez ahazteko eta erantzukizunak eskatzeko. Bestalde, eibartarrek beti izan dute bilbotar-gipuzkoar izatearen fama (barreak). Ni Donostiatic Eibarrera bizitzera etorri nintzen eta "zein zuloan sartu behar naiz?", pentsatu nuen. Mendia gustatzen zait, baina hemengo mendiak... (barreak). Donostian funikularra jarri zuten hemen bezalako malda baterako. Baina etorri nintzen eta ikusi nuen zer nolako bizitza zegoen zuloan. Ona. Demaseko poteoa dago, jende gaztea, dinamiko... Eibarrek badu mamia. Orain pertsonaia eibartar bat sortu dugu eta laster agertuko da kanalean. "Aupa Eibar eta aupa Mendilibar", da bere lema (barreak).

Iñaki Zubillaga
IÑAKI ZUBILLAGA

Itzalean

Taste taldea desegin zenean Rory Gallagherrek bere proiektu propioa eraikitzea erabaki zuen. Azken tourrean, 1970ean, Deep Joy taldea izan zen teloneroa, eta hango erritmo bikotea fitxatu zuen irlandarrak bere hirukotearentzat: Wilgar Campbell baterian eta GERRY McAVOY baxuan.

Hortik aurrera John Gerrard McAvoy benetako oinarria izan zen, beti bigarren lerroan, itzalean, baina Gallagherren musikako ezinbesteko euskarria. 11 diska, milaka kontzertu... builaren azpian baxuko pultsazioak erritmoa markatzen, bateriaren ondoan oinak lurrera torlojuz moduan lotuta, gorputza balantzaka, beti "jefeari" begira.

"Gerry McAvoy, Steeleye Span eta Rafa Berriok musika uzta bikaina laga digute azken hamarkadotan"

1969an folk ingelesaren agertoki musikalean Pentangle eta Fairport Convection ziren nagusiak. Bigarrenak, "Liege & lies" diskoa atera zutenean, Ashley "Tiger" Hutchingstaldea utzi zuen, taldekideek folk tradizioetik harantzago joan nahi zutelako. Hortik jaio zan STEELEYE SPAN.

Azkar bildu zituen musikari batzuk eta aste batean amaituta zituzten dozena bat abesti zoragarri. 1970ko ekainean irten zen "Hark! The Village wait"... eta musika munduak demaseko aho-tsa deskubritu zuen: Maddy Prior. Instrumentazio sinplea eta sekulako ahots harmoniak.... Sortze-prozesua itzela izan zen, tirabira askorekin, gehienak bi senar-emazteen artean: Tim/Maddy Hart eta Terry/Gay Woods. Guztien ahaleginek taldea apurtzea ekarri zuen. Ia-ia hasiera eta amaiera aldi berean.

Orduko esperientziatik taldeak orain arte iraun du: Hutchings eta Prior hasieran, gaur egun neskak bakarrik jarraitzen du beste musikariek. 50. urteurrena ospatzeko kontzertu mordoa zuten kontratatuta Britainia Handian, baina bertan behera geratu da jira osoa datorren urtera arte.

COVID-19a dela-eta, hainbeste berri tristen artean heriotz berezia ere izan dugu: RAFA BERRIO donostiarra joan zai-gu minbizi madarikatu baten eraginez. Rafaberriio.bandcamp.com web orrian entzun dezakezue berak lagatako ondarea.

Aitor Buendia
AITOR BUENDIA

Elikagaiak ez dira supermerkatuetan "jaiotzen"

Esan liteke titularreko baieztapen hori agerikoa dela, baina, bizi dugun sasoiak kontuan hartuta, ez dago soberan azpimarratzea. Iruditzen zait batzuetan hain sinplea eta, aldi berean, hain sakona den xehetasun honek ihes egiten digula. Izan ere, elikagaiak ez dira merkataritza gune handietan jaiotzen. Banaketa-kate handi edo txiki baten ondoren iristen dira hara, auskalo nondik hasita!

Elikagaiak, haragia, arraina, lekaleak, frutak, esnea... landa-eremutik datoz, gure itsasoetatik, gure baratzeetatik, gure zuhaitzetatik, gure abereetatik... Hor hasten da dena eta, zorionez, Mediterraneoko dieta horren funtsezkoena hemen dugu, beti garen tokian bertan.

"Eta zuk, zer egin dezakezu? Bai, zuk. Ez begiratu beste aldera"

Beste elikagai batzuk, ordea, ez daude gure inguruan, eta ehunka edo milaka kilometro egin ondoren iristen dira supermerkatuetara. Horixe dauka mundu globalizatuak. Oso argi daukat erosiko ditudan platanoak Kanarietakoak direla eta laranja Valentziakoak, baina deseroso sentitzen naiz Nafarroako zain-zurien ordez Txinakoak edo Perukoak ikusten ditudanean, edo Arabako patatak beharrean Frantziakoak. Beno, eta zer esanik ez ping-pong pilota gorriak diruditen tomateak ikusterakoan. Gauza bitxia da, gainera, hain urrutitik iritsita, normalean baino prezio baxuagoa izatea (zaporearen kontuan sartu gabe). Nola liteke?

Bada, hori da elikaduraren industria handiak darabilen logikaren zati bat. Eta hori da Eibarren sartzen naizenean aurkitzen dudana "paisaia" komertzial berria. Elikagai-multinazionalen markak eta markak, nire Eibar maitean gero eta hedatuago dagoen kontsumo mota.

Eta bitartean, gure inguruko ekoizle txikiak, zain, garai bateko "Rialto" zineman, Errebalgo espazio berria amaitzen den bitartean (amaituko da?). Egoera honen aurrean, zuri zuzentzen natzaizu, ...eta kitto!ren irakurle zaren horri. Eta zuk, zer egin dezakezu? Bai, zuk. Ez begiratu beste aldera, ez begiratu politikariei, zurekin ari naiz, zuzenean. Eta talibanismoetan erori gabe, ez dut esan nahi erosketen % 100 gertuko bideak erabiliz soilik egin behar ditugunik, joeraz ari naiz, bizi-filosofiaz, zure familia, oro har, nola elikatzen duzun. Zein da zure erabaki politikoa? (bai, horrela da, hau erabaki politikoa da): multinazional handien alde egiten duzu, ala nahiago duzu gu denon gozamenerako mendiak berde eta hostotsu egoten laguntzen duten ekoizle txikiak zaintzea? Zure esku dago.

"Que me corten la cabeza berrogeialdian etxetik grabatutako abestia da"

"Que me corten la cabeza" izeneko abestia aurkeztu berri du Julen Leturiondo 19 urteko musikari eibartarrak. Proiektu honetan hainbat musikaririk hartu dute parte, denak oso gazteak. Abestia etxetik egin du, itxialdian, eta bideoak ere egoerara moldatutakoa da, etxean grabatutakoa, alegia.

Aurreko astean argitaratu zenuen zure lehen abestia, "Que me corten la cabeza". Zelako harrera izan du?

Harrera ona izan du, batez ere jendeak ez zuelako espero. Pandemiaren erdian etxean egingakoa da eta, alde horretatik, meritua dauka. Jendeak hori ikusi duela uste dut.


Konfinamendua hasi baino lehen single bat ateratzeko asmoa zenuen, eta dena bertan behera geratu zen...

Otsailaren 29an grabatu genuen Gaztain estudioan, eta martxoan bigarren astean bideoak grabatzekoak ginen. Orduan konfinamendua etorri zen eta, pena handiz, dena bertan behera laga behar izan genuen.

Eta nola bururatu zitzaizun etxean egonda beste abesti hau idaztea eta grabatzea?

"Que me corten la cabeza" jolasa bezalakoa izan da. Konfinamenduaren hasierako nahasmena gaindituta, hausnartzen eta gitarrarekin esperimentatzen hasi nintzen. Normalean pianoa jotzen badut ere, gitarra izan da kuarentenan gehien jo dudana instrumentua. Sarean egin ditudan zuzeneko guztietan ere gitarrarekin aritu naiz. Abesti hau itxialdian bizi izan dudaren isla da. Bi zati desberdin daude: lehenengo oso grisa da, gero barealdi moduko bat dator, eta ondoren kantua.

Abestian ohikoak ez diren instrumentu batzuk agertzen



JULEN LETURIONDO • Musikaria

dira, zeharkako flauta eta biolina. Nola egin duzu etxetik musikari-talde hain anitza lortzeko?

Abestia sortzen ari nintzenean konturatu nintzen flauta oso ondo geldituko litzatekeela. Handik eta hemendik galde-tzen eta bilatzen hasi nintzen eta Mutrikuko Irene Galarraga aurkitu nuen. Ez genuen elkar ezagutzen, baina orain oso lagunak egin gara. Beste musikariak lehendik ezagutzen nituen: Balmedako Irina Alvarez biolinista; Aramaioko Idoia Asurmendi pianista; Alex Davies Eibarko baxu-jolea eta Madrilgo Gaby Nieto gitarrista. Nire aho-tzarekin eta gitarrarekin egingakoa grabazioa eta partitura bat bidali nien, hori bai, askatasun osoz jarduteko esanez. Audio horren gainean zerbait grabatu behar zuten. Kontua da, baina, etxean zituzten baliabideekin moldatu behar izan zirela. Batzuk mikrofonoa genuen, baina

beste batzuk ez. Flautaren pista, esate baterako, mugikorrarekin grabatuta dago, eta biolinak ordenagailuko mikrofonoarekin. Argi genuen ez genuela lortuko munduko soinurik onena, baina Josu Cascan ermuarrak kriston lana egin du hori guztia konpontzen, soinurik onena lortzen.

Non entzun daiteke abestia?

YouTube eta Spotifyn dago. Esperientzia honek balio izan dit Spotifyk nola funtzionatzen duen ikasteko, nahiko korapilatsua izaten baita prozesua.

Eta hemendik aurrera zer?

Lehenengo gauza martxoan eten behar izan genuen singlearen bideoarekin jarraitzea izango da. Lantaldeko kide gehienak ikus-entzunezko komunikazioko ikasleak gara, eta orain, ikasturtea amaitu bezain laster, aukera ona daukagu laster berriro ekiteko.

>>> Gipuzkoako Federazioarekin harremanetan jardun eta gero, Avia Eibar Saskibaloia klubeko arduradunek denboraldia amaitzeko erabakia hartu dute. Osasun-agintariak ezarritako neurriei jarraituz klubeko taldeek parte hartzen zuten lehiaketek ezin dutenez aurreratu eta kontaktuzko kiroletako entrenamenduak ere alde batera laga direnez, Avia Eibarrek kirol lehiaketa denboraldia amaitu du. Aurrekoak ez du kentzen osasun egoerak hobierantz egiten jarraitzen badu uztailan, aurreko urteotan bezala, saskibaloia kanpua antolatzea.

Bestalde, 2020/21 denboraldirako izena emateko epea zabaldu dute uztailaren 31ra arte; hala ere, komenigarri-

Avia Eibar Saskibaloia ere amaitutzat eman du aurtengo denboraldia



Erregional mailako Urki foball taldea Gorengoen mailan izango da 32 urte geroago

>>> Iaz gol bakarrarengatik ihes egin zion saria eskuratu du oraingoan Urki. Erregional 1. Mailan bi ordezkari izan ditugu azken denboraldian, biak ere igoera fasean lehiatu dutenak. Urki bigarren zen bere multzoan, Zestoaren atzetik baina partidu bat gutxiago jokatu, lehiaketa geratu behar izan zutenean. Hori dela-eta, aipatutako biak Usurbil eta Pasaia beste multzoko lehen biek, laurak igoko dira Erregional mailako Gorengoen mailara.

Eibartarrak taldea ere ondo sailkatuta zegoen, laugarren postuan, baina hurrengo denboraldian aurtengo maila berean jokatu du, 1. Mailan. Mikel Egañak bikain zuzendu duen gure herriko ordezkariak 1988-89 denboraldian galdutako maila berreskuratuko du horrela. Orduko hartan gaur egungo Gorengoa 1. Maila zen eta oraingo 1. Maila 2. Maila deitzen zen. Urki 1985-86an igo zen eta hiru denboraldi geroago galdutako maila.



Ez du zorte bera izan Gorengoen mailan jokatu duen Eibar Urkok, orain igotzeko atarian geratu delako. Anaitasuna bakarrik zuen aurretik sailkapenean (Unben jokatu beharreko euren artekoa atzeratuta gai-

tzat jotzen dute lehenbailehen izena ematea, taldeak ahalik eta azkarren osatzeko asmoarekin. Datorren denboraldian klubean jarraitzen dutenek herena gutxiago ordainduko dute, "osasun egoeratik galdutako jardueretako hilabeteena konpentsatzeko". Neska edo mutil bakoitzak 100 euro ordaindu beharko ditu (150 izan beharrean) eta anai-arreben kasuan 150 (225 izan beharrean). Gainera, ordaintzeko erraztasunak eskainiko dira norbaitek arazo ekonomikoak balitu.

Entrenamenduetako ordutegi eta tokiei dagokienez, saskibaloia klubeko ordezkariak hasi dute negoziaketa Udaltzaletan eta finkatu bezain laster jakinaraziko dituzte.

nera) eta azkoitiarrentzat izan da 3. mailara igotzeko saria. Eibar Urkok, lider amaituta ere, Vitoriak 2. B. mailara igotzeko jokatu behar duen fasearen emaitzari itxaron beharko zion.

Mendian federatzeko tramiteak berrartu dituzte Deporren

>>> Bizi dugun egoerak eragindako hainbat neurri hartu behar izan dituzte Klub Deportivo mendi batzordekoek, tartean ekainaren 1etik mendian federatzeko tramiteekin jarraitzea; hori bai, tramitazioa internetez egin beharko da eta dokumentazioa emailez bidali beharko mendia@deporeibar.

com helbidera. Federatu txartelak klubaren tabernan hartu ditzakezue, ohiko ordutegian: 17:30etik 21:30era. Bulegoak, bestalde, itxita jarraituko du eta jendea ez zaio aurrez-aurreko arretarik eskainiko. Horrez gain, ekaineko eta uztailko irteera guztiak bertan behera laga dituzte.



JAVI COLMENERO

Aspe pilota enpresa prest legoke hemendik hilabetera jaialdiekin hasteko

>>> Fernando Vidarte Eibar pilotariaren enpresako administratzaile bakarrak borondate hori erakutsi du Vocentoko komunikabideei eskainitako elkarrizketan. Eibartarrak uztailaren 1ean hasteko asmoa agertu du eta Irun interesatuta dago, bertako jaietako data horietan, beste pilota jaialdi bat antolatzeko. Orain arte Emakumezkoen Master Cup-eko finalerdiak eta finala daude iragarritan han jokatzeko ekainaren 26an eta 28an. Asmoarekin aurrera egiteko Vi-

dartek pare bat baldintza jarritzen ditu: pilotariaren soldaten arloan adostasunera heltzea eta pilotalekuetako aforoaren erabilera %50era iristea. Aspeko administratzaileak ez ditu udako torneok jokatzeko baztertzen eta binakako txapelketa ondoren jokatzeko aurreratu du, urriaren hasieran amaitzeko. Guzti horretarako Baiko pilota munduko beste enpresa handiarekin eskutik joan behar dira, Esku Pilotariaren Enpresetako Ligako kide diren neurrian.



Gimnastak denboraldi berriari begira

>>> Bizi dugun egoerak urtero Untzagan egiten zen "Gimnasia eguna" bertan behera lagatzera behartu bazuen ere, Ipurua gimnasia erritmikoko

klubak denboraldi berriari begirako aurreinskripzioa zabaldu zuen astelehenean. Eskerak gimnasiaipurua@hotmail.com helbidera bidali daitezke.



Ordutegi proposa egokitu zaio Eibar FT-ri Ligari berriz heltzeko

>>> Mendilibarren taldeak 19:30ean jokatuko ditu datorren astean hasiko den LaLiga azken faseko lehenengo bi partiduak. 13:00etan eta 17:00etan hasiko diren partiduak jakinda, eibartarrak ezin dira kezatu eurei egokitutako ordutegiarekin. Hasteko hila- ren 14an, domekan, Real Madrili egingo diote bisita; eta handik hiru egunera, hilaren 17an, eguaztena, Athletic-en bisita izango dute Ipuruan. Eibartarrak 27 puntu dituzte gaur

egun eta sailkapeneko 16. postuan daude. Atzetik Celta (26 puntu), Mallorca (25), Leganes (23) eta Espanyol (20) dituzte. Aurretik, bestalde, Valladolid (29), Alaves (32), Betis eta Levante (33) eta Osasuna (34). Liga amaitzeko geratzen diren 11 jardunaldietako batzuetan aurkari zuzenak izango dituzte aurrez-aurre: Osasuna (uztialaren 1ean), Leganes (8an) eta Valladolid (15ean) Ipuruan, eta Espanyol (12an) Bartzelonan jokatu beharreko neurketan.



Eibar Igerixan taldekoak itsasoan dihardute entrenatzen

>>> Maiatzaren 22an hasi ziren itsasoan entrenatzen Eibar Igerixan taldekideak. Lehenengo hitzordua Mutriku izan zuten, itsasoa bare-bare zegoela eta igerilariak ikaragarriko gogoarekin ekin zitoten jardunaldiari. Entrenamendu horiek alebin, infantil, junior eta absolutu mailan egingo dituzte

eta astelehen, eguazten eta baxakuetan joango dira kostaldera. Martitzen eta eguazten, bestalde, etxean entrenatuko dute, benjaminen kasuan bezala, egunero bidaltzen dizkieten gida eta bideoekin. Azkenik, Master Taldearen itsasoko en-trenamenduak baxakuetan antolatu dituzte.



Maskarekin ere, euskara ahoan

Herriko euskaltegietan ez da jarduna eten eta, maskararekin bada ere, ikasleek euskara dute ahoan. Ikasturtea amaitzean da, baina uda sasoi ederra izan ohi da euskara ikasteko eta, egoera berezi honetan baldintzak aldatu arren, euskaltegietako atekak zabalik egongo dira. Euskarak osasuntsu jarraitu nahi badu, indarrez egin beharko dio aurre pandemiari.

Hasieran bi asteko kontua behar zena luzatu egin zenez, Udal Euskaltegiko ikasleek etxetik jarraitu behar izan dute euskara ikasten. “Materiala pen drive eta horrelakoetan gorde genuen eta posta elektronikoa, Skype eta antzeko plataformak erabili ditugu lanean jarraitzeko”, esan digute Udal Euskaltegikoek. “Uste baino hobeto moldatu gara, baina normalean baino lan gehiago egin behar izan dugu”, diote.

Ikasleek ondo erantzun dute, nahiz eta batzuk atzean geratu diren. “Batzen Internetik ez dutelako, beste batzuk ordenagailura ohituta ez daudelako, eta hainbatek, euren etxetik egoera asko aldatu denez (lana, umeak zaindu edo dena delakoa), utzi egin behar izan dute”.

Itxialdia amaitu arren etxetik jarraitzen dute lanean, baina datorren astean ikasturte-amaierako azterketak euskaltegian egingo dituzte. “Ahozko azterketak egiteko asko erosoagoa da bertan egitea.

Internet bitartez eginez gero konexioa galtzen da, moztu egiten da, atzerapenarekin doa... aurrez aurre egitea hobe da”.

Beste ikasle batzuk BECen izango dute hitzordua ekainean eta uztailan zehar. HABEK ekainaren 12an berrabiaraziko ditu euskara maila egiaztatzeko azterketak (B2, C1 eta C2) eta, 14.000 lagun inguruk parte hartuko dutenez, azterketak BECen egiteko erabakia hartu dute segurtasun-neurriak bete ahal izateko. Orain arte EAEko hiru hiriburuetan egiten zen, baina oraingoan toki berean egingo da hainbat txandatan, “jende larregi ez pilatzeko”.

Udaberri berezia bizi ondoren, udan ohiko jardunera itzultzeko gogoia dute Udal Euskaltegian. Hilaren 19ra arte udako ikastaroetan izena emateko epea zabalik egongo da eta hitzordua eskatuta joan beharko da izena ematera. Ikastaroak, berriz, aurrez aurre eman nahi dituzte: “Egoerak txarrera egiten ez badu behintzat. Bestela, gelak ondo prestatu ditugu

“Egoerara moldatu beharko gara, baina euskara ikasteko aukera egongo da”

segurtasun- eta osasun-neurri guztiak betetzeko”. Ikastaro trinkoa izango da, ekainaren 29tik uztailaren 24ra, goizetan emango dute eta dagoeneko jendea hasi da animatzen.

Urte hau berezia izan da gutzientzat, baina Udal Euskaltegiarentzat are gehiago, apirilaren 35 urte bete zituen-eta. Hainbat ekintza eta ospakizun egin behar zituzten urteurren berezia ospatzeko, baina, pandemia tarteko, gauza batzuk zintzilik geratu dira: “Bakarriketa batzuk antolatuta ditugu,

herrian irteera batzuk egitea pentsatu genuen, Antzerki Jardunaldietan antzezlanen bat... gauza batzuk ezin izan ditugu egin, baina urtea oraindik ez da amaitu eta egingo dugu zerbait”.

Aspertzeko denborarik ez AEK-n Koronabirusak AEK euskaltegiko atekak itxi zituen. Martxoaren 13an aurrez aurreko eskolak eten zituzten eta ikastaroak Internet bitartez jarraitzeko erabakia hartu zuten. “Konfinamenduan denetarik egon da”, esan digute AEK-koek. “Ikasle batzuek normalean baino denbora gehiago izan dute eta euskara gehiago ikasteko aprobetxatu dute; beste batzuek, ordea, ez dute ez astirik ez aukerarik izan; osasun-lantegileek, senideren bat gaixo zutenek, seme-alabak dituztenek eta beste hainbatek egoera zaila bizi izan dute eta ahal zutena egiten dute; teknologiaren bidez, urrutitik eta etxean bakarrik ikastea gustatzen ez zaien pertsoneri, aurrez aurreko tal-



Aurtengo udan AEK-k ezin izango du barnetegirik egin.

deetan izena eman dutenei, ez zaie asko gustatu Internet bidez ikastea, baina sarean egindako mintzasaioak gustatu zaizkie, besteak entzutea eta elkarrekin berba egitea garrantzitsua da-eta; eta azkenik, etxetik ikasteko baliabide teknologikoak ez dituztenek posta arruntez jaso dituzte ariketak”.

Ikusten den bezala, ikasle bakoitzak egoera bat bizi du, baina ikasleek oso jarrera ona erakutsi dute AEK-koek diotenez, “eta pozgarria da”. Gainera, irakasleek bidalitako lan eta proposamenez gain, sare sozialen eta Internet bitartez euskara ikasteko eta praktikatzeko aukera gehiago izan dituzte. “Mintzasaioak, sukaldaritzsaioak, kontzertuak,

irakurgaiak, kirola etxean euskaraz egiteko aukerak, poteo birtualak euskaraz, *mindfulness*-saioak euskaraz, Euskaraldia etxetik... Jendeak irudimena dauka eta gauza originalak sortu dira”.

Itxialdia amaituta, talde gehienek Internet bitartez jarraitzen dute lanean, baina azpitalde batzuk egin dira aurrez aurre lan egiteko. Gainera, A1, A2 eta B1 mailetako ikasleek euskaltegian egingo dituzte azterketak, eta besteek BECen (B2, C1 eta C2). “Segurtasun- eta osasun-neurri guztiak hartu ditugu, espazioak berrantolatu, txandak zehaztu, eta abar. Hala ere, ez dugu arrisku larregirik hartu nahi eta, ahal baldin bada, Internet bidezko saioak

egiten saiatuko gara”, diote. Ikasturtea amaitu baino lehen ikasleekin elkartzen saiatuko dira, baina datozen asteotan egoerak nola eboluzionatzen duen ikusi beharko dute: “Ikasturtea amaitzeko nolabaiteko harreman zuzena eduki nahi dugu ikasleekin”.


Ikasturtea sanjuanak inguruan amaituko da, baina, euskaltegiak martxan jarri duen kanpainak dioen bezala, “Uda hemen da, AEK ere bai”. “Udan autoikaskuntza metodoa bultzatuko dugu. Ikasleek kontaktua izango dute tutoreekin; baina, aurrez aurrekoa bada, banaka izango da, eta bestela Internet bitartez”, diote.

Barnetegiak, ordea, bertan behera geratu dira: “Udan

AEK-k barnetegi asko eskaintzen ditu eta esperientzia polita izaten da, baina pena handiarekin, aurtan bertan behera geratuko dira”. Dena dela, AEKtik mezu argia eman nahi dute. “Euskara ikasteko aukera egongo da. Egoerara moldatuko gara, baina aukera hori emango dugu”, diote.

Udako ikastaroetan eta 2020/21 ikasturtean matrikula egiteko epea zabalik dago eta AEKren bulegoan (asteleheneretik barixakura, 10:00etatik 14:00etara), posta elektronikoko bitartez (eibar@ae.k.eus) edo telefonoz (607534357 / 943201379) eman ahal izango da izena.

Maskarek ez dituzte euskaldunak mutu utziko. ■



etakitto.eus

ezagutzen dituzu gure sare sozialak?



gaztekitto

etakitto.eus



Antzinasuna agerian. JOSE ARANBERRI.

	8		1	5		3	
1				6		5	
		3	8				
			8	7		5	6
		4	5	1	3		
8	9	6	3				
				4	6		
7		2					9
2		1	6			7	

				6			
			2	7		3	1
8	5	3					
						3	4
4	2		9		6		5
1	9						
				2	5		6
3	8		4	9			
		1					

soluzioa

8	5	3	1	6	2	7	9
1	9	6	3	4	8	5	2
2	7	4	9	3	1	8	6
3	8	9	2	5	6	7	4
4	2	6	3	7	1	9	8
5	3	7	8	2	4	1	6
6	4	1	5	9	3	2	7
7	6	2	4	8	9	5	3
9	8	7	6	1	3	4	5



SUDOKUAK

soluzioa

8	5	3	1	6	2	7	9
1	9	6	3	4	8	5	2
2	7	4	9	3	1	8	6
3	8	9	2	5	6	7	4
4	2	6	3	7	1	9	8
5	3	7	8	2	4	1	6
6	4	1	5	9	3	2	7
7	6	2	4	8	9	5	3
9	8	7	6	1	3	4	5

LABIRINTOAK

HASIERA



AMAIERA

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Farmaziak

BARIXAKUA 5
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
ZAPATUA 6
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
DOMEKA 7
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
ASTELEHENA 8
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
MARTITZENA 9
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUAZTENA 10
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
EGUENA 11
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
BARIXAKUA 12
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7))

GAUEZ BETI, 2020an,
Barandela (Ziriako Agirre, 4)

Eguraldia (euskalmet.net)**Hildakoak**

- **Adelaide Boneta Sarasua**. 95 urte. 2020-5-27.
- **Candida Artetxe Seguro**. 94 urte. 2020-5-27.
- **Ramon Elorza Maortua**. 81 urte. 2020-5-28.
- **Isaura Gonzalez Cortes**. 66 urte. 2020-5-31.
- **Jesus Zuluaga Arakistain**. 85 urte. 2020-5-31.
- **Nieves Azkoitia Iñurritegi**. 91 urte. 2020-6-1.
- **Belen Zabala Beristain**. 88 urte. 2020-6-1.
- **Maximiliano Saez Lopez**. 83 urte. 2020-6-1.

Jaiotakoak

- **Mohamed Fofana**. 2020-5-5.
- **Salma El Ayadi**. 2020-5-20.
- **Danel Barbero Lauzirika**. 2020-5-25.
- **Lucia Muniozguren Aparicio**. 2020-6-1.

**ek!**

**ESKELAK,
URTEURRENAK
ESKERTZAK...
jartzeko:**

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

ek!

**ETXEKOEN
ZORION-
AGURRAK
bidaltzeko:**

publizitatea@etakitto.eus

943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, **MADDI**.
Oso ondo ospatzeko zain gagoz, egin bihar dozun pastela jateko. Familixaren partetik.



Zorionak, **IZANE**,
martitzenian 7 urte bete zenuzuen-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **MARKO**,
atzo 9 urte egin zenuzuen-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **JARE**,
7 urte gure bizitza poztasunez betetzen. Musu haundi bat aitta, ama eta zure anaixa Jonen partez. Ondo pasa zure eguna.



Zorionak, **IBAI**,
bixar 7 urte beteko dozuz-eta. Besarkada erraldoia maite zaittugun guztion partez!



Zorionak, **IZARO**,
gaur 12 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat aitxitxa, amama, tia eta Eder eta Aiurren partez.



Zorionak, **MAIALEN**,
domekan 4 urte egingo dozuz-eta. Aitxitxa, amama eta Markel eta Aitana lehengusu-lehengusiñaren partez.



Zorionak, **JOKIN eta MIREN**,
hillaren 8xan eta 11n urtiak beteko dozuz-eta (17 eta 22 urte). Holan jarraitu, dantza eta musikarekin topera! Etxekuen partez.



Zorionak, **IZARO**,
gaur 9 urte betetzen dozuzelako, eta **AIORA**,
martitzenian urtetxua egingo dozu-eta. Ea laster ikusten garen danok alkarrekin ondo ospatzeko.

ZURE DENDA, NEGOZIO edo ENPRESAREN PUBLIZITATEA JARRI NAHI BADUZU:

publizitatea@etakitto.eus
943 20 09 18 - 943 20 67 76



Zorionak, **NAHIA**,
potxola, 2 urtetxo bete dozuz-eta! Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, MALENe partez.

Iñaki Galparsoro Garcia 7. Urteurrena (2013-VI-5)

Urteak pasatu diren arren, gure bihotzetan eta bizitzetan jarraitzen duzu. **ETXEKOAK**

JOSEFA GISASOLA GISASOLA
1. URTEURRENA (2019-VI-3)

"Sekula ez zaitugu ahaztuko" **ETXEKUAK**

Bere aldeko **MEZA** emango da ekainaren 7an (domekan),
eguerdiko 12.00etan hasita, San Andres parrokian.

Iragarki laburrak



943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Neska euskaldunak etxea hartuko luke alokairuan Untzagatik gorako auzoetan. Tel. 646-369330.
- Bikote arduratsua eta lanarekin etxea hartuko luke alokairuan. Tel. 649-662386.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Polonia Etxeberria kalean. Tel. 610-835256

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Asteburuak barne. Orduka. Tel. 660-542155.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 623-340850.
- Gizonezkoa eskaintzen da arotz lanetan, metalurgian edo laborategi-laguntzaile jarduteko. Tel. 632-593515.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-502177.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-959435.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Asteburuak barne. Tel. 602-842219.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta baserrian lan egiteko. Tel. 612-535873.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 688-735551.
- Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta eraikuntzan edo mendian lan egiteko. Tel. 662-415709.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 641-821279.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo laguntza behar dutenak zaintzeko. Autoarekin. Tel. 657-794652. Nerea.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. 631-611201.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Asteburuak barne. Tel. 635-189294.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia. Tel. 631-398396.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Autoarekin. Tel. 657-794652. Nerea.

- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 655-778451.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-415374.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-246551.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-874525.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 612-206409.

- Neska eibartarra eskaintzen da umeak zaintzeko edo nagusiei konpainia egiteko. Tel. 688-815440.
- Neska eskaintzen da asteburu garbiketarako egiteko. Tel. 602-028275.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 602-341070.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 616-524396.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lank egiteko eta sukaldatzeko. Tel. 632-329301. Marta.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 616-524396.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lank egiteko eta sukaldatzeko. Tel. 632-329301. Marta.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxea garbitzeko. Baita gauz ere. Tituluarekin. Tel. 602-490595.
- Emakumea arduratsua eskaintzen da garbiketarako eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-120664.
- Eibarko emakume arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 658-845081.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-777600.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako eta sukaldatzeko. Tel. 632-167782.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta eurei etxeko lanetan laguntzeko. Tel. 612-223075.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 645-248040. Blanca.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Titulazioarekin. Tel. 666-197831.

4.2. Langile bila

- Emakumea behar da ume txikia zaintzeko irailetik aurrera. Baita gauz ere. Externa. Tel. 669-780187.
- Pertsona behar da etxean masajeak egiteko. Tel. 943-202030.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestakuntzako ikasleei. Antzeko ezaugarriko 4 lagunekoa taldeak gehienez. Gaiinditu dutenen indize handia. Urte askotako esperientzia. Tel. 615-705945.
- Euskarazko klaseak ematen dira. Perfiletarako prestakuntza: IVAP, HABE...

Umeentzako eskolako errefortzua. Tel. 620-608065.

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab. eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.4. Bestelakoak

- Berbalagun talde bat osatu nahi dugu ingelesez berba egiteko. Horretarako, ama-hizkuntza ingelesa duen norbait behar dugu; trukean euskera/erdera beharko balu, gu prest laguntzeko. Tel. 628-780910.

Aurrematrikulatzeko moduak:

- 1- Presentziala; etorri zaituz!
- 2- Telefonoz 943 20 84 44
- 3- Web bidez; www.uni.eus

LANBIDE HEZIKETA 2020-21

AURRE MATRIKULA

ekainak 1-19

Oteola Hiribidea, 29,
20600 Eibar, Gipuzkoa
943 20 84 44
idazkaritza@uni.eus
www.uni.eus | @uni.eus

IKASTETXE PUBLIKO DOAKOIA

GOI MAILAKO ZIKLOAK

- ▲ NAZDOARTEKO MERKATARITZA
- ▲ ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
- ▲ ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK ESKAITZA PARTZIALA ARRATZALDEZ
- ▲ F EGOKITZAPEN FISIKOA
- ▲ GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA
- ▲ I PLATAFORMA ANITZETAKO APLIKAZIOEN GARAPENA
- ▲ SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA
- ▲ WEB APLIKAZIOEN GARAPENA

ESPEZIALIZAZIOAK

- ▲ I ENPRESA TXIKI ETA ERTAINETAKO ZIBERSEGURTASUNA

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- ▲ M MERKATARITZA JARDUERAK
- ▲ A ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
- ▲ I SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREAK

Zergatik erosi herriko dendetan?

Denok irabazten dugulako

- 1 Herriko ekonomiari laguntzen diogulako.
- 2 Eibarrentzako aberastasuna sortzen dugulako.
- 3 Gure herria bizirik mantentzen dugulako.
- 4 Komunitatea indartzen dugulako.

#Eibarren badakagu



**NAZIOARTEKOTZA
AUKERAK_**
Europa/Mundurako
bekak
Zikloak ingelesez



**METODOLOGIA
BERRITZAILEAK_**
Erronketan oinarritutako
talde lana



**ESPE
ZIALI
ZAZIOAK**

ELEKTRONIKA

METROLOGIA

**ESKAITZA
ZABALA**

Erdi eta goi
mailako
zikloak,
espezializa-
zioak



**LAN
POLTSA**
Langile
teknikoen
beharra



**GOI
MAILAKO
ZIKLOAK**

automatizazioa
robotika
ARI

telekomunikazioa
informatika
STI

elektronika
MET

mekatronika
MTI

diseinu
mekanikoa
DFM

produkzioa fabrikazio
mekanikoan
PPFM

**ERDI
MAILAKO
ZIKLOAK**

elektrizitatea
IEA

mekanika
MEC

**GERTUKO
HARREMANA
eta ORIENTAZIO
PROFESIONALA**



**LAN AUKERA
ZABALA_**
Enpresa
harreman estua



**Aurrematrikula Datak:
ekainaren 1etik 19ra**



www.armeriaeskola.eu



ArmeriaEskola^x

Isasi 36, EIBAR · 943 20 32 44 · www.armeriaeskola.eu